

## TALDE PROZESUA HAUR HEZKUNTZAN

Bake Heziketaren proposamenak lantzen dituzten ezbiolentzian oinarrituta dauden egitasmoek, (eta haur hezkuntzari dagokionez, lan guztia gizartean bizitzeko heziketa ikuspegitik bideraturik dagoela kontutan izanda) lehen mailako eskuhartze gisa gelako giroa lantzea proposatzen dute; hau da, gatazkak agertu aurreko garaira.

Haur hezkuntzako gela bati egokitutako talde prozesua jarraian azaltzen diren elementuak jarraian lantzea suposatzen du. Behin eta berriz lan egin ezker, gela barruan giro egoki bat sortzen joango da non haurrek nahiz hezitzaileek gatazkak eraldatzeko aukera izango duten alderdi guztientzat egokiak izanik.

Taldean bizi eta ikasteko proposatzen dugun bide honek, jarrera batzuk garatzea dakar autoestima, norbanakoaren finkatzea, konfidantza, sentimenduak elkarbanatzea, kooperatzea eta komunikazioa hobetzea besteak beste eta jarraian azaltzen diren arlo hauetan bereziki:

### 1- *Lasaitze eta erlaxaziokoak dinamikak*

Lasaitze jolasek helburu ezberdinetarako erabiliak izan daitezke: taldea "berotu", partaideen artean harremana sortzen hasteko, monotonia eta tentsio giro bat hausteko, ekintza batetik bestera pasatzeko edo eta amankomunean egindako lan bati amaiera emateko.

#### LASAITZE

Laguntasunaren trena – 3 urte

#### ERLAXAZIOA

Lasai eta tente – 3 urte.

Nire masajea – 5 urte

Zerutik ibilaldi bat – 3 urte

### 2- *Ezagutza eta aurkezpen dinamikak*

Partaideei elkar ezagutzeko aukera ematen duten jolasak dira. Hasierako uneetan erabil daitezke, pertsona bakoitzaren izenak ikasteko bakarrik, edo eta aurkezpen gisa edo eta elkar sakonkiago ezagutzeko .

Jolasten hasi aurretik, alde aurretik emandako azalpen-kontsignak ulertu direla ziurtatu behar da. Bestalde, jolasak oso errazak dira, taldean giro baikorra sortzea erraztuz.

#### ELKAR EZAGUTZA

Familiaren kulturaren kaxa – 5 urte

Naiz eta atsegin dut ... - 5 urte

Nire lagun misteriosua – 4 urte  
Zeintzuk gara? - 3 urte

### **3- Finkatze eta estimu dinamikak**

Alor hau norberaren autokontzeptua eta besteen irudi erreala eta egokia eratzearekin hertsiki lotzen da. Norberak bere burua eta besteak onartzeko gaitasuna garatzea da bere helburua eta horretarako alderdi baikorrak baloratu eta ezezkorrak onartu, estimatuak sentitu eta bakoitzaren alderdi onak baloratzea izan daitezke bideak.

Finkatze eta estimu jolas hauek, pertsona eta taldearen alderdi baikorrak potentziatzen saiatzen dira eta guztiak gustura senti daitezen laguntzen du. Finkatzea komunikazio askearen eta, ondorengo lan komunaren oinarria da, berdintasun baldintzak ziurtatuz.

#### **FINKATZEA**

“Ni”-taz egindako kuboak – 3 urte.  
Txaloen borobila – 3 urte..  
Arrea hartzaren ipuina – 4 urte..  
Arratsaldeko/ goizeko borobila – 4 urte.  
Bi begiz ituen haurra. – 3 urte.  
Ispilu magikoa - 3 urte.  
Ematen didazu -ematen dizut... – 5 urte.  
..... gogoratzen didazu - 5 urte..  
Txotxongiloen argazkia – 3 urte.  
Super izarrak – 3 urte.

#### **ESTIMUA**

Suhiltzaileak – 5 urte.  
Kotxe garbigailua - urte.  
Bidaiatzera noa eta nirekin daramat... – 4 urte.  
Elur panpina – 4 urte.

### **4- Elkarbanatzeko dinamikak**

Partaideen arteko kolaborazioan oinarriturik, gela barruan laguntza komunitate bat sortzea da asmoa; bertan ikasleriak beren sentimenduak, esperientziak eta beharrak elkar banatzen ikas dezan, eta kooperazio eta konfiantza klima bat sortzen joan daitezen gelako bestelako lagunekin, era honetan guztiak garrantzitsuak izan daitezen ekintza egiteko orduan.

Lehiaketa jolasen mekanismoak zalantzan jartzen dituzte, taldeko lankidetzarako giro lasai eta lagungarria sortuz. Taldeko guztiak garrantzitsuak dira guztion helmuga komuna lortzeko orduan. Talde sena sustatzen dute.

Kooperazioaren bideak haurren garapenera egokituta joan behar du, ezin baita ahaztu, haurrak bere lehenengo urteetan egozentrikoak direla, eta ez daudela kooperatzeko prestaturik, nahiz elkar banatu dezaketen

#### ELKARBANATU

- Arte kooperatiboa – 4 urte.
- Eskultura kooperatiboa – 3 urte.
- Ez da nahikoa – 6 urte.
- Hartzaren besarkada – 3 urte.
- Murak handia – 3 urte.
- Nire kaxa – 4 urte.
- Plastilina maketak – 4 urte.
- Txapelaz aldatu – 3 urte.

#### IDENTIFIKAZIOA ETA SENTIMENTUEN AZALPENA

- Egunari aurre egin – 3 urte.
- Nola sentitzen zaren liburua – 3 urte.
- Sentimenduak identifikatu - 3 urte
- Zoriontsua, zoriontsua naiz – 3 urte.

### **5- *Komunikazio dinamikak***

Partaideen artean, komunikazio eraginkorra sustatu. Komunikazio ez berbala ikuskatzen da, maitasun transmisioak, entzutea, asertibitatea, e.a. gatazka baten aurrean kideek hitz egin dezaten irtenbide bat bilatzerako orduan.

#### KOMUNIKAZIOA

- Hitz magikoak – 5 urte.

### **6.- Gatazkak eraldatzeko dinamikak**

Gatazkak gizaki talde guztietan agertzen dira eta Haur Hezkuntza ez da salbuespena. Arrazoi horregatik garrantzitsua da tekniken ikasketa praktikoa egitea gatazkei era sortzailean eta ezbiolentean aurre egiteko, gatazkan barne dagoen pertsona guztien inplikazio eta beharrak kontutan izateko..

Ekintzen artean, gatazka egoerak azaltzen dira edo, hauekin harremana duten zenbait aspektu. Gatazkak deskribatzen ikasteko baliagarri garrantzitsuak dira, hauen jatorria antzemateko eta baita irtenbide posibleak bilatzeko ere.

Dinamika hauek ez dute ariketa gisa bakarrik balio, beraiek bertan pertsonentzako eta taldearentzako gatazkak era sortzailean eraldatzeko esperientzia egokiak.

## GATAZKEN ERALDAKETA

Iradokizun borobila – 5 urte.

Jolas dezaket? – 5 urte.

Konpondu dezakegu – 6 urte.

Oso lagun sistema – 3 urte.

Ikus dezakezueenez, talde prozesu honek, kideak era mailakatu batean, jarrera eta trebetasun batzuetan trebatu nahi ditu. Horregatik proposatzen da gelan pausoz pauso lantzen joatea; horrela, hasierako uneak taldekideak lasaitzera bideratu, izenaz gain elkar ezagutzera .. eta ondoren, hurrengo pausuetan sakontzen joan behar da beraien gatazkak “denok irabazi” ideiatik eraldatzeko gai diren arte

Iradokizun gisa, etapak bere horretan egin ezean, hutsuneak nabarituko ditugu, adibidez, sentimenduak edo gatazken eraldaketan lanean hasten bagara erlaxazioa eta lankidetzat landu aurretik.